**GOBERNU BATZARRA**

**2015. 11. 23**

**Alkatea:**

**Olatz Peón Ormazabal**

**Zinegotziak:**

**Patxi Amantegi Zubiria**
**Nerea Letamendia Belloso**
**Jokin Azkue Arrastoa**
**Iñigo Alonso Sarasibar**

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

**Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko azaroaren hogeita hiruan 08:00tan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.**

**1.- Aurreko akta onartzea.**

**2.-Tolosako Bidebieta Auzoan aparkaleku eremua Urbanizatzeko obren 4. ziurta-giria (FV1-1511-0020 Faktura)**

**3.-"12.4 San Frantzisko Pasealekua 32-34-36" azpiesparrua urbanizatzeko jarduketa programa. Hasierako onespena/ Aprobación inicial del programa de actuación urbanizadora del subambito "12.4 San Frantzisko 32-34-36".**

**4.-Poltsa berrerabilgarriak erosteko Tolosa&Co-k egindako dirulaguntza eskaera.**

**5.- Eudeleko kuotak 2012-2015.**

**6.- Langunea Tolosaldean 2015.**

**7.-35/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

**1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko azaroaren 16an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

**2.- <u>Tolosako Bidebieta Auzoan aparkaleku eremua Urbanizatzeko obren 4. ziurtagiria (FV1-1511-0020 Faktura).-</u>**

2015ko uztailaren 2an sinaturiko 2015/1101 zenbakidun alkate dekretu bidez, Campezo Obras y Servicios, S.A., enpresari esleitu zitzaion Tolosako Bidebieta auzoan aparkaleku eremua urbanizatzeko obren kontratuak 746.838,68 €-ko (BEZ barne) prezioa du.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honako zenbatekoak izan dituzte:

| *Ziurtagiri zenbakia* | *Faktura zenbakia* | *Zenbatekoa* |
| --- | --- | --- |
| 1. ziurtagiria | FV1-1507-0108 | 42.547,40 € |
| 2. ziurtagiria | FV1-1509-0025 | 54.813,71 € |
| 3. ziurtagiria | FV1-1510-0016 | 74.409,35 € |
| **GUZTIRA** | | **171.770,46 €** |

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako laugarrena, honakoa da:

| *Ziurtagiri zenbakia* | *Faktura zenbakia* | *Zenbatekoa* |
| --- | --- | --- |
| 4. ziurtagiria | FV1-1511-0020 | 137.517,12 € |

Ziurtagiri hau azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

<u>LEHENA</u>.- Tolosako Bidebieta auzoan aparkaleku eremua urbanizatzeko obren kontratoaren 4. ziurtagiria onartzea: zenbatekoa **137.517,12** €.

<u>BIGARRENA</u>.- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Campezo Obras y Servicios, SA, enpresari, Obretako departamentuari eta Kontuhartzailetzari.

**3.- <u>“12.4 San Frantzisko Pasealekua 32.34-36” azpiesparrua urbanizatzeko jarduketa programa. Hasierako onespena/ Aprobación inicial del programa de actuación urbanizadora del subambito “12.4 San Frantzisko 32-34-36”</u>.**

Ikusita izenburuan zehazten den dokumentua eta, era berean, horren gainean idatzitako txosten juridikoa eta teknikoa, espedientean jasota daudenak, eta ekainaren 30eko 2/2006 legeak, Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren legeak, 156 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Hirigintza batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Visto el documento señalado en el encabezamiento, así como los informes jurídico y técnico emitidos al respecto, que obran en el expediente, y de conformidad con lo previsto en el artículo 156 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de suelo y Urbanismo del País Vasco y el dictamen de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**<u>LEHENA</u>**.- !12.4 San Frantzisko 32-34-36” azpiesparruko Jarduera Programari (aurrerantzean UJP) hasierako onespena ematea ondoko baldintza hauekin:

**Faseak**:

Dokumentuan planteatzen diren faseak honakoak dira:

1.- Eraikitze fasea
2.- Eraispenak eta urbanizatze fasea.

Faseak deskribatzerakoan era oso era sinplifikatu batean egin da eta eraikinaren baldintzak ikusiaz badirudi ondorengo pausuak beharrezkoak direla:

1.- Eraikin berria altxa, bere bertikalean dagoen sotoa barne eta gutxieneko urbanizazio bat bukatu

2.- Eraikin zaharrak bota.

3.- Sotoa bukatu, San Frantzisko aldera duen zatia eraikiaz.

4.- Urbanizazio lanak amaitu.

Fase hauek jaso beharko dira behin betiko dokumentuan, idatziz eta modu grafikoan, zalantzarik egon ez dadin.

Eraikinari lehen erabilera eman ahal izateko,

**<u>PRIMERO</u>**.- Aprobar, inicialmente, el Programa de Actuación Urbanizadora (en adelante P.A.U.) del subámbito “12.4 San Frantzisko 32-34-36” con el siguiente condicionado:

**Fases:**

Estas son las fases planteadas en el documento:

1.- Fase de construcción
2.- Fase de derribos y urbanización

La descripción de las fases se ha realizado de un modo muy simplificado y, visto el estado del edificio, parecen necesarios los siguientes pasos:

1.- Construir un nuevo edificio incluyendo el sótano que se encuentra en su vertical, y finalizar la urbanización mínima.

2.- Derribar los edificios viejos.

3.- Terminar los sótanos, edificando la parte que da hacia San Frantzisko.

4.- Finalizar las obras de urbanización.

Estas fases deberán contemplarse en el documento definitivo, por escrito y de forma gráfica, para no dar lugar a dudas.

Para la primera utilización del edificio, las

eraikinak berak behar dituen azpiegitura minimoak bukatuak beharko dute eta martxan jarriak.

infraestructuras mínimas requeridas por la edificación deberán estar concluídas y en funcionamiento.

Bestalde, garapenaren momentu jakin batean, etxebizitzen lehen erabilera eman ahal izango da, nahiz eta garajeek amaitu gabe egon eta ezin izango diren erabili San Frantzisko aldera ematen duen zatia bukatu arte. Horretarako, gainera, eraikin zaharra bota beharko da, eta, dena amaitzeko, urbanizazio lanak bukatu, udalak jaso ditzan.

Por otra parte, en un momento dado del desarrollo, se concederá licencia para la primera utilización de las viviendas, aunque los garajes no estén terminados y no se puedan utilizar hasta concluir la parte que da a San Frantzisko. Para ello, será necesaria, además, la demolición del viejo edificio y la ejecución total de la urbanización, para su posterior recepción por parte del ayuntamiento.

Hau da, lehen erabilera eman ondoren, eraikinak ez luke aparkalekuen dotazioa beteko eta sustatzaileak bere karga urbanistikoak ere bete gabe izango lituzke bere osotasunean, operazio osoa bukatu arte.

Es decir, después del otorgamiento de licencia de primera utilización, el edificio no dispondría de la dotación de aparcamiento y el promotor no cumpliría la totalidad de las cargas urbanístricas correspondientes, hasta la finalización íntegra de la operación.

Gauzak horrela eta edozein arrisku ekiditeko, dagozkion bermeak jarri beharko dira, udalak operazio osoa gauzatuko dela zihurtasuna izateko. Etxebizitza berrien lehen erabilera eman ahal izateko, ondorengo bermeak izan beharko lituzke udalak:

En consecuencia, y para evitar cualquier riesgo, se formalizarán las debidas garantías para que el ayuntamiento tenga absoluta certeza de la ejecución íntegra de la operación. En concreto, el ayuntamiento dispondrá de las siguientes garantías para el otorgamiento de la primera utilización de las nuevas viviendas:

1.- Eraikin zaharrak botatzearen kostua.

1.- Costo de la demolición de los viejos edificios.

2.- Aparkalekua bukatzeko eta martxan jartzeko kostua.

2.- Costo de las obras para la finalización y puesta en marcha del aparcamiento.

3.- Urbanizazioa bukatzeko kostua.

3.- Costo de le ejecución íntegra de la urbanización.

Behin betiko dokumentuak kopuru hauek zehaztu beharko ditu, ezingo delarik eraikin berriaren lehen erabilera eman berme hauek udalaren esku izan arte.

El documento definitivo deberá concretar estas cantidades y no se concederá licencia de primera utilización hasta que el Ayuntamiento disponga de las mencionadas garantías.

**Ordenazioa**:

**Ordenación:**

Kontutan izanda bide-zorra duten eremu batzuk daudela, azpian aparkalekuekin, inolaz ere instalazioa publikoak ezingo dira

Teniendo en cuenta que existen zonas de servidumbre de paso con aparcamientos debajo, las instalaciones públicas no

eremu pribatutik joan (aparkalekuetako sabaian zintzilik).

podrán ir en ningún caso en zonas privadas (colgadas del techo de los aparcamientos).

**Ur hornidura:**

Eraitsi behar diren eraikinen aurretik pasatzen den 80 mm-tako hodia fundiziozko 150 mm-tako diametroa duen beste hodi batengatik aldatu beharko da, zirkuitoa itxiz.

Memoria osatzen duen pleguan, Gipuzkoako Urfak, S.A., enpresaren Erreglamentu Teknikoaren aipua jaso beharko da, ur hornidura eta saneamenduko instalazioek bete beharko dutena.

**Abastecimiento de agua:**

La tubería de 80 mm que pasa delante de los edificios a demoler se deberá sustituir por otra tubería de fundición de 150 mm, cerrando el circuito.

En el pliego que compone la memoria, se recogerá el Reglamento Técnico de la empresa Gipuzkoako Urak, S.A., que deberán cumplir las instalaciones de abastecimiento de aguas y saneamiento.

**Ur zikinak:**

Egungo eraikinei zerbitzu ematen dien hodia kendu beharko da.

Memoria osatzen duen pleguan, Gipuzkoako Urak, S.A., enpresaren Erreglamentu Teknikoaren aipua jaso beharko da, ur hornidura eta saneamenduko instalazioek bete beharko dutena.

**Aguas fecales:**

Se deberá retirar la tubería que da servicio a los edificios actuales.

En el pliego que compone la memoria, se recogerá el Reglamento Técnico de la empresa Gipuzkoako Urak, S.A., que deberán cumplir las instalaciones de abastecimiento de aguas y saneamiento.

**Euri urak:**

Urbanizazio proiektua garatzeko fasean egungo instalazioen errebisio bat egin beharko da.

Memoria osatzen duen pleguan, Gipuzkoako Urak, S.A., enpresaren erreglamentu Teknikoaren aipua jaso beharko da, ur hornidura eta saneamenduko instalazioek bete beharko dutena.

**Aguas pluviales:**

En la fase de desarrollo del proyecto de urbanización se deberá realizar una revisión de las actuales instalaciones.

En el pliego que compone la memoria, se recogerá el Reglamento Técnico de la empresa Gipuzkoako Urak, S.A., que deberán cumplir las instalaciones de abastecimiento de aguas y saneamiento.

**Gas azpiegitura:**

Urbanizazioko obra osagarrien proiektuan bi akometida egitearen aurreikuspena jaso beharko da.

**Infraestructura de gas:**

Dentro del proyecto de obras complementarias de la urbanización se contemplará la previsión de realizar dos acometidas.

**Argiteria:**

*Jartzen diren luminariak led sistemakoak izan behar dute, udalerrian jarritako beste modeloen antzekoak.

**Alumbrado:**

* Se instalarán luminarias de sistema led, similares a otros modelos instalados en el municipio.

*Uniformetasun bermatu ahal izateko, luminaria berdinak jarri beharko dira 30. zenbakian hasi et 38 bitarteraino.

*Gune honek koadro propio bat zian beharko du, alta berri batekin eta behar den bezela legeztatua.

*Gainontzeko xehetasunak Tolargiko arduradun teknikoekin adostuak izan beharko dute.

**Argindarra:**

Araudiak dioenari jarraituz, argindarraren hornidura kostu gutxien behar duen enpresak eman behar du.

Kasu honetan espaloiaren beste aldean, Allirin, Tolargi konpaniak azpiegitura osoa du horretarako.

**Beralojamenduak:**

105/2008 Dekretuaren, premiazko neurriei buruzkoa, 23.7 artikuluari jarraiki, berralojamendu-eskubidea duten pertsonen eta horien etxebizitzen zerrenda, eta eskubide hori gauzatzeko aukeratutako etxebizitzen eta hirigintza-eraikigarritasunen zerrenda txertatu beharko dira eranskin gisa.

**Azterketa ekonomiko-finantzieroa:**

Aurkeztutako azterketa ekonomiko-finantzieroa ez da aintzat hartuko erkidegoak hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan parte hartzeko duen eskubideren zenbatekoa kalkulatze aldera, ezta ere zuzkidura karga kitatze aldera.

**<u>BIGARRENA</u>**.- Espedientea hogei egun informazio publikoko tramitera jarrita edukitzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta.

**<u>HIRUGARRENA</u>**.- Hasierako onarpenaren

* Para poder garantizar la uniformidad, se instalarán luminarias iguales desde el número 30 al 38.

* La zona dispondrá de un cuadro propio, con alta nueva y debidamente legalizado.

* El resto de condiciones se acordarán con los responsables técnicos de Tolargi.

**Electricidad:**

Atendiendo la normativa del sector, la empresa que genere menos gastos será la encargada del abastecimiento de electricidad.
En este caso, la compañía Tolargi dispone de una infraestructura completa para dicho abastecimiento justo al otro lado de la acera.

**Realojamientos:**

De conformidad con el artículo 23.7 del Decreto 105/2008 de medidas urgentes, se incluirá como anexo la relación de viviendas y de las personas que tuvieran derecho a realojo, así como de las viviendas y edificabilidades urbanísticas sobre las que se pretenda materializar el mismo.

**Estudio económico-financiero:**

El estudio económico-financiero no se tomara en cuenta a la hora de calcular el alcance económico de la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística, ni la cuantía económica asociada al levantamiento de la carga dotacional.

**<u>SEGUNDO</u>**.- Someter el expediente a trámite de información pública mediante la publicación del correspondiente anuncio en el B.O. de Gipuzkoa, por un plazo de veinte días.

**<u>TERCERO</u>**.- Notificar el acuerdo de

erabakia jardueraren eraginpeko ondasunen eta eskubideen titularrei jakinaraztea.

aprobación inicial a las personas titulares de los bienes y derechos afectados por la actuación.

**LAUGARRENA**.- Hasierako onarpenaren erabakia San Frantzisko 38ko jabekideei jakinaraztea, azpiesparru honekin zerikusia duten hirigintza espedienteetan interesatutzat har daitezen eskatu baizuten.

**CUARTO**.- Notificar el acuerdo de aprobación inicial a los copropietarios de San Frantzisko 38, toda vez que solicitaron se les tuviera por interesados en los expedientes urbanísticos que se tramiten en relación a este subámbito.

**4.- Poltsa berrerabilgarriak erosteko Tolosa &Co-k egindako dirulaguntza eskaera.**

Gorka Arregi Agirrek, Tolosa&Co elkartearen izenean, dirulaguntza eskaera bat egin du poltsa berrerabilgarriak erosteko. Dirulaguntzaren zenbatekoa 5.000€-tan aurreikusten da.

Ikusita, Ingurumen saileko 2015eko aurrekontuetan dirulaguntzak izeneko atal bat dagoela, ingurumenerako onuragarriak diren ekintzak diruz laguntzeko eta Tolosa&Co elkarteak egindako proposamena hondakinen sorreran eragin positiboa izango dela, beti ere komertzioetako bezeroek banatuko diren poltsak erabiltzeko ohitura hartzen badute, erabilera bakarreko poltsen ordez.

Ikusita, Ingurumen Teknikariak egin duen txostena, eta berarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Tolosa&Co Elkarteari poltsa berrerabilgarriak erosteko dirulaguntza ematea: Zenbatekoa 5.000€. Dirulaguntza zuritzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dizkio udalari 2015eko abenduaren 31 baino lehen.

- Ekintzaren behin betiko memoria: erositako eta banatutako poltsa kopurua, burututako informazio kanpaina, poltsa berrien erabileraren inguruko balorazioa.
- Gastuen likidazioa. Fakturak eta hauen ordain agiriak.
- Elkartearen Gizarte Segurantza eta Ogasuneko ziurtagiriak.

**BIGARRENA**.- Onartutako dirulaguntzaren ordainketa arautuko duen hitzarmena onartzea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri, Tolosa&Co elkarteari, kontuhartzailetzari, Merkataritza eta Azokak, Obra eta zerbitzuak eta Ingurumen Departamentuari jakinaraztea.

5.- **Eudeleko kuotak 2012-2015.**

EUDEL-ek azken lau urtetan ordaindu ez diren bazkide kuotak erreklamatu ditu. Hain zuzen ere, 2012, 2013, 2014 eta 2015eko ekitaldiei dagozkienak.

Urteko kuota 3.005,06 eurokoa da eta gastuari aurre egiteko nahiko kreditua dago.

Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- EUDELEri ordaintzea azken lau urteetako kuotak: Guztira, 12.020,24 €.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta EUDEL-i

6.- **Langunea Tolosaldean 2015.**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu zuen Enplegu Sustapeneko Tokiko Ekintzetarako Laguntza-deialdia, zeina Lanbideko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2015eko martxoaren 25ean egindako bilkuran (2015eko martxoaren 31n argitaratu zen EHAOn).

Tolosako Udalak 366.333 euroko programa bat aurkeztu zuen 2015eko ekainaren 22an.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusianaren ebazpenaren bidez Tolosako Udalari 366.060,59 euroko dirulaguntza eman zitzaion.

Ildo horretatik, hainbat enpresek interesa azaldu dute “Langunea Tolosaldean 2015” programan parte hartzeko eta programako partaideak kontratatzeko.

Hau dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Ondoren aipatzen diren enpresei dirulaguntza hauek ematea, beti ere azalpen zatian aipatutako programan xedatzen diren baldintzak eta gauzatuko diren hitzarmenean jarritakoak betetzen badituzte.

| Enpresa | Kontratu kopurua | Kontratu iraupena | Lanaldia | Langilea | Dirulaguntza |
|---|---|---|---|---|---|
| Tolosaldea Garatzen | 1 | 6 hilabete | Osoa | L.M.E. | 12.500,00 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Galdaratz hortz klinika | 1 | 6 hilabete | Osoa | S.S.C. | 5.850,00 |
| Izarra taberna | 1 | 6 hilabete | Osoa | I.I.G. | 6.000,00 |
| Triku denda | 1 | 6 hilabete | Osoa | RA. M.B. | 6.000,00 |
| Expresso Zenbitzuak | 1 | 6 hilabete | Osoa | G.L.G. | 6.000,00 |
| Iker Alkorta Martiartu | 1 | 6 hilabete | Osoa | IA.A.O. | 5.215,39 |
| Zabala Sagardotegia | 1 | 6 hilabete | Osoa | JM.T.A. | 6.000,00 |
| Larreta esnekiak | 1 | 6 hilabete | Osoa | A.I.L. | 6.000,00 |
| Olgaiz | 1 | 6 hilabete | Osoa | E.E.O. | 6.000,00 |
| Industrias Ocariz | 1 | 6 hilabete | Osoa | D.M.A. | 6.000,00 |
| Precocinados Lambroa | 1 | 6 hilabete | Osoa | MI.A.P. | 6.000,00 |
| Vinos Aranburu | 1 | 6 hilabete | Osoa | L.M. | 6.000,00 |
| Itxasi | 1 | 6 hilabete | Osoa | O.P.M. | 6.000,00 |
| Bost Machine Tools | 1 | 6 hilabete | Osoa | I.M.D. | 6.000,00 |
| Sufetra | 1 | 6 hilabete | Osoa | M.O.T. | 6.000,00 |

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Enplegu departamentuari, Kontuhartzailetzari eta interesatuei.

**7- 35/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.**

Kontuhartzailetzak **35/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **283.156,76** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I  D U**

**LEHENA.- 35/2015** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

**Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:**

**2015eko hainbat asfaltatu lanak, publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez, kontratatzeko baldintza pleguak**.-

Kontratazio-proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA**.- Espedientea onartzea 2015eko hainbat asfaltatu lanak kontratatzekoa, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez.

* Lizitazio-tipoa hau da: 90.000 euro

* Prezio hori honelaxe dago banatuta: 74.380,72€-balio estimatua eta 15.619,38 BEZa.

**BIGARRENA**.- 90.000,00 euroko gastua baliatzea dagokion partidaren kargura.

**HIRUGARRENA**.- Onartzea klausula administratibo partikularren agiria, aipameneko lanak kontratatzeko eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea dagozkion gonbidapenak eginez.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:30 tan.**

**ALKATEA** **IDAZKARIA**